Gipuzkoako Farmazialariak
Farmacéuticos de Gipuzkoa
Gipuzkoako Sendagaigileen Elkartea
Colegio Oficial de Farmacéuticos de Gipuzkoa

EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

ACUERDO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS - EUDEL Y EL COLEGIO OFICIAL DE FARMACÉUTICOS DE GIPUZKOA (COFG)

En Donostia/San Sebastián 6 de mayo de 2025

REUNIDOS

De una parte Dña. ESTHER APRAIZ, en calidad de Presidenta de EUDEL - Euskadiko Udalen Elkartea/Asociación de Municipios Vascos con domicilio social en la calle Ercilla, 13 48009 Bilbao.

De otra, D. MIGUEL ANGEL GASTELURRUTIA, en calidad de Presidente del COLEGIO DE FARMACÉUTICOS DE GIPUZKOA, con domicilio social en la Calle Prim, nº 2-1º, 20006 de Donosita/San Sebastián.

Ambas partes se reconocen recíprocamente legitimación y capacidad suficiente para otorgar el presente acuerdo y

MANIFIESTAN

Conformidad con el presente acuerdo, en la representación con la que actúan, firman el presente documento, en lugar y fecha indicados.

Por LA ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS (EUDEL),

Fdo. ESTHER APRAIZ

Por el COLEGIO OFICIAL DE FARMACÉUTICOS DE GIPUZKOA,

Fdo. MIGUEL ANGEL GASTELURRUTIA.

XXXX UDALAREN ETA GIPUZKOAKO SENDAGAIGILEEN ELKARTE OFIZIALAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA

1. SARRERA

Hitzarmen honen helburua da erakunde arteko lankidetza-esparru bat ezartzea XXXXXX(e)ko Udalaren eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialaren artean. Bien helburuak bat datoz, biek lan egiten baitute pertsonen bizi-kalitatea eta horretarako behar diren arreta-mailak hobetzeko eta igotzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak adierazten du Gizarte Zerbitzuen Sistemaren Prestazio Orokorretako bat dela bizikidetza-zerbitzuak edo -programak eskaintzea interesdunaren etxean bertan egiten diren jardueren aurrean, eta 29. artikuluan ezartzen du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak herritarrak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara iristeko lehen gune gisa jarduten duten diziplina anitzeko unitateak direla, eta horien funtzio nagusia gizarte-zerbitzuen arloan arreta jaso dezaketen gizarte-premiak detektatzea eta horiei arreta ematea dela, dagokien lurralde-eremuan, Gizarte Zerbitzuen Sistema horretako instantzietarako sarbidea koordinatuz eta kudeatuz.

Sendagaigileen Elkarte Ofizialaren helburuetako bat da farmazia-lanbidearen jarduna herritarren osasuna sustatzera eta erabiltzaileentzako farmazia-sorospen egokia lortzera bideratuta egon dadin zaintzea. Horretarako, gainerako erakunde publiko eta pribatuekin beharrezko diren lankidetza-tresnak ezarriko ditu.

XXXXX(e)ko Udal Gizarte Zerbitzuek eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialak badakite zer-nolako arazo dauden sendagaiak eta, oro har, farmazia-zerbitzuak eskuratzeko, bai eta pertsona jakin batzuek sendagaiak maneiatzeko eta kontrolatzeko zer-nolako zailtasunak dituzten ere, autonomia pertsonala mugatua dutelako eta beste arrazoi batzuengatik. Horregatik, farmazia-zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak eta sendagaiak zentzuz erabiltzeko mugak gainditzeko helburuari begira, ados daude arazo horiek konpontzen saiatzeko lankidetza ezartzearekin, horri esker programako parte-hartzaileek sendagaiak zentzuz erabiltzeko modua hobetzeko.

LEHENENGOA.- PARTE-HARTZAILEAK

XXXXX(e)ko Udal Txit Gorenaren izenean, Alkatea _____ eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialaren ordezkari moduan _____, Presidente gisa.

Parte-hartzaileek, beren karguen arabera eta bakoitzari emandako ahalmenak erabiliz, hitzarmen hau egiteko gaitasuna eta eskumena aitortzen diote elkarri.

BIGARRENA.- HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da _____(e)ko Udalaren eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialaren arteko lankidetza-esparru bat ezartzea. Bi programaren bidez, bi erakunde horiek pertsonen bizi-kalitatea eta beharrezko arreta-mailak hobetzeko eta igotzeko lan egiten dute, eta bat egiten dute helburu horrekin:

1. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzuek artatutako pertsonen medikazioaren erabilera hobetzeko programa: medikazioaren erabilera hobetzeko programa bat inplementatzeko. Programa horren helburu nagusia da _____(e)ko Udaleko etxez etxeko laguntza-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek artatutako pertsonen medikamentuen erabilera optimizatzea, haien segurtasuna eta eraginkortasuna bermatzen laguntzeko (I. ERANSKINA).
2. 2. Arazo soziosanitarioak dituzten egoerak detektatzeko programa: Farmazien saretik premia soziosanitarioak detektatzeko sistemak indartuz, Gizarte Zerbitzuek artatu ditzaketen egoeren aurrean (II. ERANSKINA).

Nolanahi ere, indarrean dagoen lege-esparruak eta esparru teknikoak parte hartzen duen alde bakoitzari esleitzen dizkion eskumenak eta funtzioak errespetatzetik abiatzen dira agiri honetan ezarritako jarraibideak eta irizpideak.

HIRUGARRENA.- LANKIDETZARAKO BESTE BIDE BATZUK

Beste lankidetza-bide batzuk ere ireki ahal izango dira, lehen deskribatutako programetan parte hartzen duten langileen prestakuntza hobetzeko egokitzat jotzen diren loturak ezartzeko. Halaber, beste proiektu berritzaile batzuk diseinatu eta gauzatu ahal izango dira, egokitzat jotzen diren ikerketak egin ahal izango dira, informazioa trukatu ahal izango da, eta, oro har, erakunde sinatzaileek esleituta dituzten helburuak hobeto lortzera bideratutako jarduera guztiak egin ahal izango dira.

LAUGARRENA.- SUSTATZAILEEI BURUZ

Bai XXXX(e)ko Udalak bai Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialak konpromisoa hartzen dute programa horien betearazle gisa elkar aitortzeko, egiten den edozein erreferentzia publikoren aurrean.

BOSGARRENA.- HITZARMENA EBALUATZEKO BATZORDEA

Hitzarmen honen ondoriozko jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Batzorde Tekniko Paritarioa eratuko da, aldeen ordezkariek osatua.

Batzorde horrek hitzarmenak behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko behar diren ekintzak gauzatuko ditu, eta egindako jardueren memoria idatziko du.

SEIGARRENA.- HITZARMENA IRAUNGITZEKO ARRAZOIAK

Hitzarmen hau iraungitzeko arrazoiak honako hauek izan daitezke:

1. Edozein estipulazio ez betetzeagatik suntsiaraztea, bidezkoak diren kalte-ordain edo ordainen ekintzei kalterik egin gabe.
2. Osasun Sailaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia Elkargoen arteko lankidetza-hitzarmena, etxez etxeko laguntza-zerbitzuek artatutako pertsonen medikazioaren erabilera hobetzekoa, 2022ko apirilaren 19koa, iraungitzea.
3. Alde sinatzaileak ados jartzea.
4. Bi aldeetako batek uko egitea, 2 hilabete lehenago jakinarazita.
5. Aurreikusitako epea eta luzapenak ez betetzea.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Lankidetza Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean eta lau urteko indarraldia izango du. Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo azkentzea.

ZORTZIGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA

Gizarte-zerbitzuetan eta farmazia komunitarioan erabiltzen diren datu pertsonalak bereziki sentikortzat jotzen dira, eta babesik handiena dute zabaltzeari eta irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko aukerei dagokienez.

Ahal den guztietan, pertsonaren baimen libre eta borondatezkoa lortuko da, profesionalek beren egoerari buruzko informazioa trukatu dezaten. Profesionalen artean ematen den informazioak ahalik eta txikiena, beharrezkoa eta egokia izan behar du, atzemandako egoeraren arabera.

A) ALDEEN DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Jakinarazten da harremanetarako datu pertsonalak eta aldeen ordezkarienak tratatu egingo direla alde bakoitzak lotzen dituen harreman juridikoak dirauen bitartean, akordio hau kudeatu eta ebazteko, harremana eta komunikazioa mantentzeko eta ezarritako harremana kudeatzeko. Tratamendu hori aldeen arteko harreman juridikoan oinarritzen da.

Ez da aurreikusten datu horiek hirugarrenei lagatzea, ezta nazioarteko datu-transferentziak egitea ere.

Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako eskubideak akordio hau sinatzen duten aldeen helbide sozialetan baliatu ahal izango dira.

B) DATU PERTSONALEN TRATAMENDUAN ERANTZUNKIDETASUNA IZATEKO AKORDIOA

Hitzarmen hau sinatzen duten aldeek hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri, eta tratamenduaren arduradun diren heinean, ordezkari horiek behartuta daude tratamenduaren erantzunkide gisa jarduten duten ordezkaritzan.

Horregatik, Datuak Babesteko (EB) 2016/679 Erregelamendu Orokorraren (aurrerantzean, DBEO) 26. artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren (aurrerantzean, DBLO) 29. artikulua betez, aldeek beren arteko harremana zehazten dute, akordio honen 3. eranskinean ezarritako klausulen arabera.

BEDERATZIGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Berariaz araututa ez dagoen guztian, Esparru Hitzarmen hau indarrean dagoen legeriaren arabera arautu eta interpretatuko da, eta Gipuzkoako Epaitegi eta Auzitegien eskumenaren mende jarriko dira Aldeak, haren inguruan sor daitezkeen eztabaidak konpontzeko, eta legokiekeen beste edozein eskumeni uko egingo diote.

I. ERANSKINA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUEK ETA GIZARTE-ZERBITZUEK ARTATZEN DITUZTEN PERTSONEN MEDIKAZIOAREN ERABILERA HOBETZEKO PROGRAMA

SARRERA

LEHENENGOA.- Programaren helburua

- Pazienteei beren medikamentuak identifikatzen laguntzea eta medikamentu horiek emateko jarraibideak ezagutzea.
- Pazienteari agindutako sendagaiak bere medikuak ezarritako jarraibideen arabera jasotzen laguntzea.
- Tratamenduarenganako atxikidura hobetzen laguntzea (tratamendua betetzea).
- Sendagaiekin zerikusia duten arazoak identifikatzea, hala nola bikoiztasunak eta ez-betetzeak, eta sendagaien erabilerari lotutako emaitza negatiboak prebenitzen edo saihesten laguntzea.
- Etxeko laguntzaileen eta/edo zaintzaileen lana erraztea, sendagaiak eskuratzearekin, kontserbatzearekin eta administratzearekin lotutako aldeetan.
- Etxez etxeko laguntzaileei eta/edo zaintzaileei prestakuntza eskaintzea.

BIGARRENA.- Onuradunak

1. Medikamentuak erabiltzeko programa honen onuradun izan daitezke beren etxeetan bizi diren eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuak artatzen dituen pertsonak edo familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomiko bat jasotzen dutenak. Halaber, onuradunak izan daitezke hainbat arrazoirengatik gizarte-harrerako zentroetan dauden pertsonak, beren ezaugarri soziosanitarioak direla-eta hitzarmen honen onurak jaso ditzaketenak.

2. Pertsona horiek medikamentuen erabilera hobetzeko programan sartzea borondatezkoa da, eta berekin dakar justifikatzea etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren edo familia-inguruneko zaintzetarako prestazio ekonomiko baten onuradunak direla edo gizarte-harrerako zentroetan bizi direla, dagokion erakundearen zigiluaren bidez eta programaren funtzionamendu-baldintzen onarpen sinatuaren bidez. Baldintza horiek 1. agiri gisa ageri den baimen informatuaren agirian daude jasota.

3. Onuradunek edozein unetan utz dezakete programa, eta horretarako baldintza bakarra da horren berri ematea, bai prestazio hori jasotzen duten farmazia-bulegoan, bai gizarte-zerbitzuetan.

HIRUGARRENA.- Parte hartzen duten farmaziak

1. Parte hartzen duten farmaziak Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialak berariaz horretarako akreditatutakoak dira.

2. Akreditazioa lortzeko, farmazia-bulegoak, gutxienez, dagokion prestakuntza-ikastaro teoriko-praktikoa egin duen farmazialari bat izan behar du, eta haren titularrak programari atxikitzeko konpromisoa sinatu behar du, 2. agiri gisa ageri dena, eta Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialera bidali.

3. Atxikitze-konpromiso hori borondatez sinatzen duten farmaziak behartuta daude programa Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialaren prozeduran ezarritakoaren arabera garatzera eta zerbitzua zuzenean eskaintzera, eta espresuki debekatuta dago zerbitzua eskuordetzea edo azpikontratatzea. Halaber, farmaziak nahitaez salatu eta jakinarazi beharko du ildo horretan egin dakiekeen edozein azpikontratazio-eskaintza.

LAUGARRENA.- Prozedura

1. Udal gizarte-zerbitzuek programa horren berri emango diete programa horren onuradun izan daitezkeen pertsonei, eta programaren funtzionamendurako baldintzen berri emango diete.

2. Programa honetan parte hartu nahi duen onuradunak edo bere legezko ordezkariak Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialak akreditatutako farmazia bat aukeratuko du.

3. Udal gizarte-zerbitzuek bete eta zigilatu egingo dute 1. agiri gisa agertzen den programan/baimen informatuan sartzeko agiria, eta pertsona onuradunari edo haren zaintzaileari emango diote, harekin batera aukeratutako farmaziara joan dadin.

   Onuradunak, haren zaintzaileak edo etxez etxeko laguntzaileak hautatutako farmazian entregatuko du programa/baimen informatuan sartzeko agiria, zigilatua eta sinatua.

4. Farmaziak Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialari jakinaraziko dizkio programaren onuradun diren pertsonen sarrerak eta bajak, eta dagokion programan sartzeko agiriaren/baimen informatuaren kopia bidaliko du.

5. Baimen-agiri informatua sinatu ondoren, hautatutako farmaziak elkarrizketa egingo dio onuradunari edo, hala badagokio, haren zaintzaileari edo etxeko laguntzaileari, programa behar bezala garatzeko behar diren datuak lortzeko eta erregistratzeko, Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialaren prozeduraren arabera. Datu horiek mediku arduradunarekin kontrastatuko dira.

6. Era berean, farmazialariak onuradunari ematen zaion tratamendua berrikusiko du eta jarraipena egingo dio, sendagaiekin zerikusia duten arazoak sortzen diren detektatzeko, hala nola interakzioak, bikoiztasunak, dosifikazioak edo administrazio-tarte okerrak. Erantzuna baiezkoa bada, hori zuzentzeko zer egin behar den zehazteko, agindua eman duen medikuarekin harremanetan jarri behar da, gorabehera motaren eta esku hartzeko proposamenen berri emateko. Proposamenak Jarraipen Batzordeak adostutako sailkapenaren arabera identifikatuko dira.

7. Une horretatik aurrera, farmaziak onuradunaren preskripzio aktiboak eskuratzen dituen bakoitzean, haiek dispentsatzeari ekingo dio, legeak aurreikusten duen moduan, osasun-txartelaren bidez. Dispentsatu ondoren, zaintzapean gordeko ditu dispentsatutako sendagaiak, dosifikazio-sistema pertsonalizatuak adostutako epean prestatzeko. Sistema horiek aldian behin prestatzen eta ematen jarraituko dute. Dosifikazio-sistema

pertsonalizatuekin batera, tratamendu bakoitzaren hasieran, pazienteari edo haren arduradunari emango zaizkio haietan egokitutako sendagai guztien prospektuak, eta sendagaiak kontserbatzeko baldintzei buruzko informazioa emango zaio.

8. Dosifikazio-sistema pertsonalizatuak prestatzeko aldia amaitu ondoren edo tratamenduan aldaketaren bat gertatzen denean, onuradunak farmazian emango ditu eskura dituenak, edozein egoeratan daudela ere, berriak jaso aurretik.

9. Hilero, farmaziak programaren ebaluazio-parametro eta -adierazleei buruzko informazioa bidaliko dio Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialari. Horretarako, onuradun bakoitzak datuak biltzeko formulario bat beteko du, 3. agirian aurreikusitako ereduarekin bat datorrena, eta telematikoki bidaliko da, berariazko informazio-sistema baten bidez.

BOSGARRENA.- XXXXX(e)ko Udalaren betebeharrak

1. Lankidetza-hitzarmen honen xedeak eta helburuak lortzen laguntzea.

2. Hautatutako erabiltzaileek edo, hala badagokio, haien zaintzaileek edo etxeko laguntzaileek akreditatutako farmazia libreki aukeratzen dutela bermatzea, medikazioaren erabilera optimizatzeko zerbitzua emateko.

3. Programa egiteko behar den informazioa Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialaren esku jartzea, datu pertsonalak babesteko araudiak ezarritako baldintzen arabera.

SEIGARRENA.- Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialaren betebeharrak

1. Lankidetza-hitzarmen honen xedeak eta helburuak lortzen laguntzea.

2. Akreditatutako farmazien parte-hartzea bermatzea.

3. Programari buruzko prestakuntza-ikastaroak antolatzea, farmazientzat eta etxez etxeko laguntzako langileentzat.

4. Programa egiteko behar den informazioa XXXXXX(e)ko Udalaren esku jartzea.

ZAZPIGARRENA.- Programaren finantzaketa

Programa gauzatzeko kostuak parte hartzen duten farmazia akreditatuek ordainduko dituzte.

Osasun Sailak laguntza ematen du hitzarmen honen xede den programan parte hartzen duten farmazia egiaztatuei onuradun bakoitzari egindako zerbitzuengatiko ordainketan, Osasun Sailak eta Euskal Autonomia Erkidegoko farmazia-elkargoek 2022ko apirilaren 19an sinatutako hitzarmenean xedatutakoaren arabera.

PROGRAMARI ERANTSITAKO AGIRIAK

1. AGIRIA: PAZIENTEAREN BAIMEN INFORMATUA

2. AGIRIA: PROGRAMARI ATXIKITZEKO KONPROMISOA

3. AGIRIA: DSP DUEN PAZIENTE BAKOITZAREN HILEKO DATUEN FITXA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Euskal Herriko Farmazilarien Kontseilua
Consejo de Farmacéuticos del País Vasco

Pazientearen baimen informatua / Consentimiento informado del/de la paciente

Agiria
Eranskina **1**

Pazientea: / Paciente:

Pazienteak identifikatzeko kodea / Código identificación paciente	□□/□□□/□□ *Farmaziak bete beharrekoa (1) / A rellenar por la farmacia (1)*
Izen-deiturak / Nombre y apellidos	NAN / DNI
Helbidea / Domicilio	Herria / Población

(1) Lehenengo bi digituak lurralde kodea dira (Araba:01, Gipuzkoa: 20, Bizkaia: 48), hurrengo hirurak farmaziaren zenbakia dira eta azken biak farmaziak pazienteari emandako zenbakia dira.

(1) Los dos primeros dígitos corresponden al código territorial (Alava: 01, Gipuzkoa: 20, Bizkaia: 48) los tres siguientes corresponden al número de la farmacia y los dos últimos al número que la farmacia asigna al paciente.

Gizarte Ongintza zerbitzua: / Servicio de Bienestar Social:

	Zerbitzuko zigilua / Sello del Servicio

Farmazia: / Farmacia:

Zk. / Nº	Izena / Nombre	Lekua / Ubicación	Herria / Población

Adierazten dut dosifikatze-sistema pertsonalizatuaren prestatze-, erabiltze- eta kontserbatze-prozesu osoaren berri eman didatela, eta prozesu hori aurrera eramango dela interesduna eta farmazialari titularra ados gauden bitartean.

Declaro haber sido informado-a de todo el proceso de preparación, utilización y conservación del Sistema Personalizado de Dosificación y de que éste se llevará a cabo mientras la persona interesada y el-la farmacéutico-a titular estemos de acuerdo.

....., ...

.....	.....
Pazientea edo legezko arduraduna	Farmazialari titularra
Paciente o responsable legal	Farmacéutico-a titular

Zerbitzu horrek behar bezala funtziona dezan, baimena ematen dut nire datu pertsonalak (izen-abizenak, jaioteguna, bizilekua, IFZ, harremanetarako telefono zenbakiak, hurbileko senide baten izena eta telefono zenbakia, eta nire familia medikuaren izena eta telefono zenbakia) eta osasunari dagozkionak (gaixotasun kronikoak, alergiak eta intolerantziak) *Pazientearen fitxa* izeneko fitxategi automatizatuan gorde ditzaten. Fitxategi horren helburua da Etxez Etxeko Laguntzarako Udal Zerbitzuaren erabiltzaileen artean sendagaien erabilera hobetzeko programa aurrera eramatea. Fitxategi horren titularra, goian adierazten den farmazia da.

Datuok ez dira beste ezertarako erabiliko, nik berariazko baimenik ematen ez badut, datu horiek eskuratu, zuzendu edo baliogabetu ahalko ditut nahi dudanean, datu pertsonalak babesteko legean (15/1999 Lege Organikoa) ezarritakoari jarraituz.

Orobat, sistemak ondo funtziona dezan, ardura hauek hartzen ditut:

- Nire tratamenduei dagokien informazio osoa ematea, eguneratuta.
- DSPa egiteko behar diren errezetak farmaziara garaiz eramatea.
- DSPa prestatzeko aurrez emandako sendagaiak farmaziari uztea, gorde egin ditzan.
- DSPa kontserbatzeko baldintzak betetzea.

Bestalde, farmazialari titularrak honako ardura hauek hartzen ditu:

- Pazienteen datuen erabilera desegokia ez egitea.
- DSPa behar bezala prestatzeko ezarritako prozedurari jarraitzea.
- Farmazia bulegoan gordetzeko utzitako sendagaiak zaintzea.
- Blisterren bat baliogabetzen duen edozein gorabehera gertatuz gero, pazienteari lehenbailehen jakinaraztea.
- Pazienteari edozein zalantza sortzen bazaio, hari informazioa eman eta zalantzak argitzea.

Para que este servicio funcione correctamente, doy permiso para que mis datos personales (nombre y apellidos, fecha de nacimiento, domicilio, NIF, teléfonos de contacto, nombre y teléfono de un familiar próximo y de mi médico de cabecera) y de salud (enfermedades crónicas, alergias e intolerancias) se incluyan en un fichero automatizado denominado "Ficha del-de la paciente", cuya finalidad es el desarrollo del Programa para la optimización del uso de la medicación en usuarios-as del Servicio de Ayuda Domiciliaria Municipal, titularidad de la farmacia arriba citada.

No se hará ningún otro uso de los datos sin mi consentimiento expreso y podré acceder, rectificar o cancelar dichos datos cuando desee, de acuerdo con lo que se establece en la Ley Orgánica 15/1999 de protección de datos personales.

Asimismo, para un buen funcionamiento del sistema me comprometo a:

- Facilitar toda la información relativa a mis tratamientos de forma actualizada.
- Llevar a la farmacia con la suficiente antelación las recetas necesarias para poder elaborar el SPD.
- Dejar en depósito a la farmacia la medicación previamente dispensada para la preparación del SPD.
- Cumplir con las condiciones de conservación del SPD.

Por su parte, el-la farmacéutico-a titular, se compromete a:

- No hacer un uso indebido de los datos del / de la paciente.
- Seguir el procedimiento establecido para la correcta elaboración del SPD.
- Custodiar la medicación que queda depositada en la oficina de farmacia.
- Avisar al a/la paciente con la mayor prontitud posible ante cualquier eventualidad que invalide un blister (retirada del medicamento, retirada del lote, etc...)
- Informar y aclarar al / a la paciente cualquier duda que surja.

Agiria
Anexo **2**

Atxikitzeko ardurak onartzea / Compromiso de adherencia

Farmazialari titularra: / Farmacéutico-a titular:

Izen-deiturak / Nombre y apellidos	Elkargokide zk. / Nº de colegiado-a

Farmazia: / Farmacia:

Zk. / Nº	Izena / Nombre	Lekua / Ubicación	Herria / Población

Farmazialari akreditatuak: / Farmacéuticos-as acreditados-as:

	Izen-deiturak / Nombre y apellidos
1	
2	
3	
4	

Interesa dut nire farmazian Dosifikatze Sistema Pertsonalizatuak lantzeko jarduera profesionala garatzeko. Horretarako, Euskal Autonomia Elkarteko udaletxeen etxez etxeko laguntzarako zerbitzuaren erabiltzaileen sendagai erabilera hobetzeko programari atxikiko natzaio, eta hertsiki jarraituko diot helburu horretarako ... Sendagaigileen Elkartea Ofizialak ezarri duen prozedurari.

Nire farmazia-bulegoak dituen egitura eta tresneria aintzat hartuta, prozeduran zehaztutako prozesu guztiak gauzatzeko egokia dela jotzen dut.

Orobat, nire farmazia-bulegoan goian aipatutako farmazialari elkargokideak ditut; denok dosifikatze-sistema pertsonalizatuak prestatzean lan prozedura normalizatuari (LPN) eta programaren sistematikari buruzko prestakuntza teoriko-praktikoa lantzeko ikastaroa egin dute, eta egiaztagiria jaso dute.

...ko Sendagaigileen Elkartea Ofizialari eskatzen diot nire eskaera kontuan har dezala, eta nire farmazia onar dezala Euskal autonomia Elkarteko udaletxeen etxez etxeko laguntzarako zerbitzuaren erabiltzaileen sendagai erabilera hobetzeko programa gauzatzeko.

Estoy interesado-a en desarrollar la actividad profesional de elaboración de Sistemas Personalizados de Dosificación en mi farmacia, adhiriéndome al Programa para la optimización del uso de la medicación en usuarias de los Servicios de Ayuda Domiciliaria de los Ayuntamientos del País Vasco y siguiendo estrictamente lo establecido en el procedimiento que a tal fin tiene el Colegio Oficial de Farmacéuticos de ...

Considero que mi oficina de farmacia es apta por estructura y utillaje para realizar cada uno de los procesos descritos en este procedimiento.

Así mismo, mi oficina de farmacia cuenta con los farmacéuticos-as colegiados-as arriba citados, que han realizado el curso de formación teórico-práctico sobre la sistemática del programa y sobre el procedimiento normalizado de trabajo (PNT) en la preparación de los Sistemas Personalizados de Dosificación y han sido acreditados.

Solicito al Colegio Oficial de Farmacéuticos de ...que considere mi solicitud y acepte la inclusión de mi farmacia para realizar el "Programa para la optimización del uso de la medicación en usuarios de los Servicios de Ayuda Domiciliaria de los Ayuntamientos del País Vasco".

Farmazialari titularra / Farmacéutico-a titular

3. Agiria/Anexo 3

FICHA DATOS MENSUALES DE CADA PACIENTE CON SPD/

HILEROKO GAIXOAREN DATUAK SPDarekin

FARMAZIAREN DATUAK /DATOS FARMACIA	
FARMAZIAREN IZENA /NOMBRE FARMACIA	
FARMAZIAREN ZK. / Nº FARMACIA	
HERRIA/POBLACION	
FARMAZIALARI ARDURADUNA / FARMACÉUTICO RESPONSABLE	
HILABETEA/MES	

PAZIENTEAREN DATUAK/DATOS PACIENTE	
PAZIENTEAREN ZK./Nº PACIENTE	
SEXUA/SEXO	
JAIOTZE-URTEA/AÑO NACIMIENTO	
SENDAGAI-KOPURUA GUZTIRA/Nº MEDICAMENTOS TOTALES	
SENDAGAIAK GUZTIRA SPD BARNE/Nº MEDICAMENTOS INCLUIDOS EN EL SPD	
HILABETEAN PRESTATUTAKO BLISTERRAK/Nº BLISTER PREPARADOS (MES)	

INTZIDENTZIAK/INCIDENCIAS	
FARMAZIARA SENDAGAIEKIN ITZULITAKO BLISTERRAK /Nº BLISTER RETORNADOS A LA FARMACIA CON MEDICAMENTOS	
ARRAZOIA/MOTIVO	
EGIN GABEKO HARTUALDIAK (HILABETEAN)/Nº TOMAS NO INGERIDAS (TOTAL MES)	
GOSARIA/DESAYUNO	
BAZKARIA/COMIDA	
AFARIA/CENA	
GAUEAN/NOCHE	
HARTU GABEKO KONPRIMITUAK (HILABETEAN)/Nº COMPRIMIDOS SIN TOMAR (MES)	
ERABILI GABEKO ERREZETA-KOP. (DEUSEZTEKO)/Nº RECETAS NO DISPENSADAS (PARA INUTILIZAR)	
ARRAZOIA/MOTIVO	
ERABILI GABEKO ERREZETEN ZENBATEKOA/IMPORTE TOTAL DE LAS RECETAS NO DISPENSADAS	
INTERBENTZIAN ESKU-HARTZEA / INTERVENCION ANTE LA INCIDENCIA	

II. ERANSKINA

ARAZO SOZIOSANITARIOAK DITUZTEN EGOERAK DETEKTATZEKO PROGRAMA.

1. XEDEA

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Farmazia Komunitarioen Saretik premia soziosanitarioak detektatzeko sistemak bultzatzea, eta farmazien eta Udal Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazio-mekanismoak ezartzea, gizarte-zerbitzuen sistemak arreta eman diezaiekeen egoeren aurrean.
2. Esku hartzeko jarraibideak eta irizpideak adostea, bi sareek batera bat egiten duten kasuetarako.
3. Topaguneak eta hausnarketarako eta erakundeen arteko lankidetza hobetzeko guneak sortzea horrelako egoeretarako.

2. PROZEDURA

Ondoren, detekta daitezkeen egoeren arabera jarraitu beharreko jarraibideak ezartzen dira:

A. BAKARDADE-EGOERAK

Edozein arrazoirengatik, laguntzako gizarte- eta familia-sare gutxi edo bat ere ez duten pertsonak, eta gizarte-isolamenduko egoeran egon daitezkeenak, harreman garrantzitsurik ez dutelako eta egoera hori arintzen lagun dezakeen jarduera soziokulturalik egiten ez dutelako.

Farmazia Komunitarioen Saretik:

1. Bizilekuari dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzura joateko esango eta animatuko dugu.
2. Pertsona batek informazio zehatzagoa behar duela uste bada, eta haren baimena izanez gero (1. agiria), farmazia komunitarioa pertsona bizi den udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuarekin harremanetan jarri ahal izango da.

Udal Gizarte Zerbitzutik:

Kasuan dauden inguruabarrak aztertuko dira, eta egoera zehatza kontuan hartuta ezarri behar diren egoera, jarduketak eta baliabideak baloratuko dira.

B. AUTONOMIA PERTSONALAREN GALERAKO, MENDEKOTASUNA IZATEKO ARRISKUKO ETA MENDEKOTASUNEKO KASUAK

Narriadura kognitiboa, muga funtzionalak, elikadurarekin eta higienearekin lotutako arazoak edo oinarrizko beharrak behar bezala betetzen ez dituzten pertsonak, eta, horregatik, uste denez, eguneroko bizitzako ekintzak egiteko laguntza behar dutenak.

Farmazia Komunitarioen saretik:

1. Lehenik eta behin, pertsona horiei edo haiek zaintzen dituztenei beren bizilekuari dagozkion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joateko informazioa eta bultzada emango zaie.
2. Farmazia komunitarioan beharrezkotzat jotzen bada, eta horretarako pertsonaren baimena izanez gero (1. agiria), dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuan hitzordua eskatuko zaio bere izenean.
3. Larritasun- eta arrisku-maila potentzialaren arabera, farmazia komunitarioa, erabiltzailearen baimenarekin (1. agiria), zuzenean harremanetan jarri ahal izango da dagozkion oinarrizko gizarte-zerbitzuekin.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik:

Kasuan dauden inguruabarrak aztertuko dira, eta egoera zehatza kontuan hartuta ezarri behar diren egoera, jarduketak eta baliabideak baloratuko dira.

C. FAMILIA ZAINTZAILEEN GAINKARGA ETA AMORE-EMATE EGOERAK

Mendekotasuna edo mendekotasun-arriskua duten pertsonen senideak eta zaintzaile ez-profesionalak, minusbaliotasun aitortua dutenak, buru-gaixotasunaren diagnostikoa dutenak edo etxean artatutako beste zaurgarritasun-egoera batzuk dituztenak. Haien zainketen intentsitateak edo iraupenak gainkarga-egoeran eta amore emateko arriskuan jartzen ditu.

Farmazia Komunitarioen saretik:

1. Familia zaintzaileei laguntzeko programen berri emango da.
2. Zaintzaileak informazio zehatzagoa behar duela uste bada, pertsona horiei edo zaintzen dituztenei informazioa eta bultzada emango zaie bizi diren tokiko oinarrizko gizarte-zerbitzuetara jo dezaten.
3. Farmazia komunitarioan beharrezkotzat jotzen bada, eta horretarako pertsonaren baimena izanez gero (1. agiria), dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuan hitzordua eskatuko zaio bere izenean.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik:

Kasuan dauden inguruabarrak aztertuko dira, eta egoera zehatza kontuan hartuta inplementatu behar diren baliabideak eta zerbitzuak baloratuko dira.

D. INDARKERIA MATXISTA EDO FAMILIA BARRUKO INDARKERIA EGOERAK

Horrelako arazoei dagokienez, hiru kasu egon daitezke, eta horietako bakoitzak bere artatzeko modu propioa beharko luke.

1. Farmazia komunitarioaren ustez, tratu txar edo indarkeria matxista edo familia barruko indarkeria egoera bat jasaten ari daitezkeen pertsonak.
2. Farmazia komunitarioan horrelako egoeren biktima izaten ari direla esaten duten pertsonak.
3. Une horretan mehatxatuak izaten ari direlako laguntza espresuki eskatuz farmazia komunitarioan aurkezten diren pertsonak.

Farmazia Komunitarioen saretik:

1. Lehenengo bi kasuetan, pertsona bere bizilekuari dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzura joatera gonbidatuko da, bere kokapenaren eta harremanetarako moduaren berri emanez, edo, pertsonaren baimena izanez gero (1. agiria), hitzordua eskatuko zaio bertan, bere izenean.

2. Genero-indarkeriaren kasuan, genero-indarkeriaren biktimentzako Euskal Autonomia Erkidego osorako dagoen 24 orduko erreferentzia-telefonoa ere emango da: 900840111.

3. Aipatutako hirugarren kasuan, 112 telefono-zenbakira deitu behar da.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik:

Kasuan dauden inguruabarrak aztertuko dira, eta egoera zehatza kontuan hartuta ezarri behar diren egoera, jarduketak eta baliabideak baloratuko dira.

E. ADINEKO PERTSONEI EMANDAKO TRATU DESEGOKI EDO TRATU TXARREN EGOERAK

Farmazia Komunitarioen saretik:

1. Lehenik eta behin, bizi diren lekuari dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzura joateko informazioa eta animatuko dira pertsonak, edo, pertsonaren baimena izanez gero (1. agiria), hitzordua eskatuko zaie beren izenean.
2. Larritasun- eta arrisku-maila potentzialaren arabera (abusu ekonomikoa, tratu desegokia edo tratu txar fisikoa), tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitzeko eta haien arrisku-faktoreak hautemateko galdetegia bete ahal izango da (2. agiria).

   Galdera-sorta honen helburua da zaurgarritasun-egoeran edo tratu txarrak jasateko arriskuan dauden 65 urtetik gorako herritarrak identifikatzea, batez ere eguneroko bizitzako jardueretarako mendekotasun-egoeran dauden adinekoak.

   Pertsona batek eremuetako batean (fisikoa eta ekonomikoa) gutxienez bi arrisku-faktore baditu, eta detektatutako egoeran oinarrituta, dagokion oinarrizko gizarte-zerbitzuari jakinaraziko zaio, pertsonaren baimenarekin (1. agiria), balorazio sakona egin dezan.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik:

Kasuan dauden inguruabarrak aztertuko dira, eta egoera zehatza kontuan hartuta ezarri behar diren egoera, jarduketak eta baliabideak baloratuko dira.

F. GIZARTE ZERBITZUEN SAREAK AZTERTZEA ETA ESKU HARTZEA ESKATZEN DUTEN BESTE EGOERA BATZUK

Beste egoera batzuetan, larritasun-maila kontuan hartuta, baliteke beharrezkoa izatea gizarte-zerbitzuen sareari jakinaraztea, balorazioa egin dezan.

Farmazia Komunitarioen saretik:

1. Lehenik eta behin, bizi diren lekuari dagozkion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joatera animatuko dira herritarrak.
2. Farmazia komunitarioan beharrezkotzat jotzen bada eta horretarako pertsonaren baimena izanez gero (1. agiria), hitzordua eskatuko du pertsonaren izenean, bizilekuaren arabera dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik:

Kasuan dauden inguruabarrak aztertuko dira, eta egoera zehatza kontuan hartuta ezarri behar diren egoera, jarduketak eta baliabideak baloratuko dira.

PROGRAMARI ERANTSITAKO AGIRIAK

1. AGIRIA: PERTSONAREN BAIMEN INFORMATUA

2. AGIRIA: ADINEKOEK TRATU TXARRAK JASATEKO ARRISKU FAKTOREAK DETEKTATZEKO TRESNA

1. AGIRIA: PERTSONAREN BAIMEN INFORMATUA.

Honen bidez, nik, _____ andreak/jaunak, adinez nagusi, NAN zenbakia _____ duena, eremu soziosanitariotik berehalako arreta eta balorazioa emateko eta Farmazia Komunitarioak nire interes pertsonalari buruz egindako oharrak kontuan hartuta _____:

Berariaz, libreki eta borondatez onartzen dut goian aipatutako farmazia nire izenean XXXXXXX(e)ko Udal gizarte-zerbitzuarekin harremanetan jartzea, erakunde horrek behar dudan laguntza eman diezadan, zehazki (aplika daitekeena/daitezkeenak aukeratu):

- ☐ Bakardade-egoerak.
- ☐ Autonomia pertsonalaren galerako, mendekotasuna izateko arriskuko eta mendekotasuneko kasuak.
- ☐ Familia zaintzaileen gainkarga eta amore-emate egoerak.
- ☐ Indarkeria matxista edo familia barruko indarkeria-egoerak.
- ☐ Adineko pertsonei emandako tratu desegoki edo tratu txarren egoerak.
- ☐ Gizarte Zerbitzuen sareak aztertzea eta esku hartzea eskatzen duten beste egoera batzuk.

DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak _____ farmazia ari dela tratatzen, eta, udal gizarte-zerbitzuei jakinarazi ondoren, lehen aipatutako helburuetarako erabiltzen direla. Legitimazio-oinarria da agiri honetan emandako adostasuna eta erakunde hartzaileen interes publikoa. Zure datuak ez dira lagako zuk aurretik onartutakoaz gain. Ez da nazioarteko datu-transferentziarik egingo. Hala dagokionean, eskubidea duzu datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, aurka egin, datuen eramangarritasuna eskatu, tratamendua mugatu eta erabaki automatizatu hutsen xede ez izateko; horretarako, dagokion tratamenduaren arduradunari idatzi behar diozu:

Tratamenduaren 1. arduraduna: _____ farmazia

E-maila (farmaziaren kontaktua eta, halakorik bada, DPD e-maila): _____

Tratamenduaren 2. arduraduna: Udal Gizarte Zerbitzuak: _____

Nolanahi ere, zure eskubidea bete ez dela baderitzozu edo emandako erantzunarekin ados ez bazaude, aipatutako erakundeetako edozeinetan Datuak Babesteko ordezkari gisa izendatutako pertsonaren aurrean jo dezakezu, dagokion kontrol-agintaritzari erreklamazioa jarri aurretik. Era berean, nahi izanez gero, erreklamazioa jar dezakezu zuzenean kontrol-agintaritzaren aurrean.

Pertsonaren sinadura
(edo Tutorea/Legezko ordezkaria)

.....

Izen-deiturak

.....

Data 20.. / ..... / .....

Farmazialariaren/arduradunaren sinadura

.....

Izen-deiturak

.....

Data 20.. / ..... / .....

2. AGIRIA: ADINEKO PERTSONEK TRATU TXAR FISIKO ETA EKONOMIKOAK IZATEKO ARRISKU-FAKTOREAK prebenitzeko eta detektatzeko galdetegia.

Galdetegirako jarraibideak

Adinekoari arreta soziosanitarioren bat ematen ari zaion edozein profesionalek aplika dezake galdetegia.

65 urtetik gorako edonori aplika dakioke. Bere egoera pertsonala edo esku hartzeko plana dela-eta azaldu ezin den kalteren bat detektatuz gero aplikatuko da, berak kontatuta edo ikusita. Pertsona emakumea bada, 80 urtetik gorakoa bada eta mendekotasun-egoeran badago, beti pasatzea gomendatzen da.

Adineko pertsona bati arreta eman ondoren osatu behar da galdetegia. Ez da beharrezkoa ohiko esku-hartze batean egingo litzatekeenaz bestelako ezer arakatzea. Behaketa egin eta galdetegia pertsona bakoitzarekin behin bete behar da, arreta zenbat egunetan edo alditan ematen zaion kontuan hartu gabe.

Pertsona batek eremuetako batean (fisikoa eta ekonomikoa) gutxienez bi arrisku-faktore baditu, eta detektatutako egoeraren arabera, (ikus 1. eranskina) dagokion udal gizarte-zerbitzuari jakinaraziko zaio, erabiltzailearen baimenarekin, balorazio sakona egin dezan (ikus 2. eta 3. eranskinak).

"Oharrak" atalean, interesgarria izan daitekeen edozein datu adieraz daiteke: beste arrisku-faktore batzuk edo beste datu batzuk, baina ez dute punturik emango.

Tratu txar FISIKOAK	
ADINEKOAK DITUEN ARRISKU-FAKTOREAK	
Nahi gabeko isolamendu edo bakardade larria eta gizarte-sarearen ahultasuna.	
Narriadura kognitiboa, zaintza eta arreta zailtzen duten jokabide-aldaketekin batera.	
Adinekoak zaintzailearekiko duen mendekotasun fisiko eta emozionala.	
Higiene eskasa edo arropa desegokia.	
ARRISKU-FAKTOREAK ADINEKO PERTSONAREN INGURUNEAN	
Zaintzaren antolaketa txarra (hainbat zaintzaile koordinaziorik gabe, zaintzailerik gabeko denbora-tarteak).	
Adineko pertsonaren eta gaixo dauden pertsonen arteko elkarbizitza gatazkatsuko gertaerak (adineko pertsonaren eta bere zaintzaile nagusiaren arteko gatazkaren aurreko historia, pertsona nagusiak aukeratu ez dituen ordezkariak, interes- edo balio-gatazkak...).	
Zaintzaile nagusiak muga pertsonalak ditu pertsona zaintzeko (gainkargarekin, arazo psikopatologikoekin, alkoholari edo bestelako toxikomaniaren bati lotutako gehiegizko kontsumoarekin... lotuta).	
Adineko pertsonaren etsaitasuna berarekin bizi den zaintzailearengana eta haren defizita maneiu-estrategietan.	
Motibaziorik gabeko profesionalek, gaizki ordainduek, soldata baxukoek, artatutako adin nagusiko pertsona, burnout...	
OHARRAK: Beste Arrisku batzuk, haren egoera fisikoari buruzko iruzkinak...	

Tratu txar EKONOMIKOAK
ADINEKOAK DITUEN ARRISKU-FAKTOREAK
Bere egoera ekonomiko pertsonala ez ezagutzea eta horregatik arduratzea.
Zorrak, aurrez bere gastuei aurre egiteko behar besteko gaitasun ekonomikoa duela uste denean.
Dohaintzak eta ondasunen eskualdaketak.
ARRISKU-FAKTOREAK ADINEKO PERTSONAREN INGURUNEAN
Adineko pertsonaren baliabide ekonomikoekiko mendekotasun oso handia.
Arazo finantzarioengatik sortutako gatazken aurrekariak.
Zaintzaileak pertsona nagusiaren ardura hartzeko duen gehiegizko interesa.
OHARRAK: beste arrisku batzuk, haren egoera ekonomikoari buruzko iruzkinak...

III. ERANSKINA

DATUEN TRATAMENDURAKO ERANTZUKIDETASUN-AKORDIOA.

Aldeek hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta tratamenduaren ordezkari gisa jardungo duten ordezkaritzan behartuta daude.

Eranskin honen ondorioetarako, aldeak honako erakunde hauek dira:

- XXXXXXX(e)ko Udal gizarte-zerbitzuak
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden farmazia komunitarioak

Gipuzkoako Sendagaigileen Elkarte Ofizialak, bere estatutuekin bat etorriz, Gipuzkoako farmazia komunitarioetako farmazialari titularren izenean jarduten du. Eranskin honen ondorioetarako, Erkidegoko farmazien farmazialari titularrak izango dira tratamenduaren erantzunkide.

Horregatik, Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorraren (aurrerantzean, DBEO) 26. artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoaren (aurrerantzean, DPBLO) 29. artikulua betez, aldeek haien arteko harremana honako hauen arabera erabakitzen dute:

KLAUSULAK

LEHENA. - AKORDIO HONEN HELBURUA

Akordio honen helburua da lehen aipatutako aldeen arteko harremana formalizatzea, datu pertsonalen tratamenduaren erantzunkide gisa, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 26. artikulua eta Datuak Babesteko Lege Organikoaren 29. artikulua betez.

Harreman hori lankidetza-hitzarmen honetan oinarritzen da, eta klausula hau hitzarmen horren parte da. Hitzarmen honen helburua da XXXX(e)ko Udal Gizarte Zerbitzuek eta farmazia komunitarioek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduak arautzea, erakunde horiek egiten dituzten jarduerei dagokienez, bai eta datu horiek abian jartzeari, gauzatzeari, kudeatzeari eta administratzeari lotutako legezko betebeharrak arautzea ere.

BIGARRENA. - ALDEEN FUNTZIOAK ETA HAIEN ARTEKO HARREMANA

Aldeek, tratamenduaren erantzunkide gisa, akordio honetan ezartzen dituzte interesdunen datu pertsonalen tratamenduari dagokionez haien artean dauden funtzioak eta harremanak. Ildo horretan, bai XXX(e)ko Udal gizarte-zerbitzuek, bai erkidegoko farmaziek, hitzarmen honetan hartutako betebeharretatik eratorritako datu pertsonalen tratamenduak gauzatuko dituzte, lehen aipatutako datuak babesteko indarrean dagoen araudia betez, batez ere konfidentzialtasunari eta sekretu-betebeharrari dagokienez (DBEO, 5.1 f) artikulua)

Erabiltzaileen datu pertsonalen tratamenduan parte hartzen duten aldeek izan behar dutena, baita eragindakoei informatzeko eginbeharra ere (DBEO, 13. artikulua).

HIRUGARRENA. - DATU PERTSONALETARAKO SARBIDEA ETA HAIEN ERABILERA

Aldeak izango dira detektatutako gizarte-premiak dituzten pertsonen datuen erantzule, eta datu horiek gerora erabiltzeko baimena izango dute, bakoitzaren pribatutasun-politikaren arabera, hitzarmenaren kasuistikan aplikatu beharreko datu-tratamenduetan oinarrituta, zeinak alta emanda baitaude tratamendu-jardueren erregistroetan (TJE).

Tratamenduaren arduradunek tratatu ahal izango dituzten eta eskuragarri izango dituzten datu pertsonalen kategoriak hauek izango dira, besteak beste: [Identifikazio-datuak, inguruabar sozialei buruzko datuak, kategoria bereziko datuak, hala nola osasunari, sexu-orientazioari eta erlijioari buruzkoak...]

Era berean, Aldeek erabaki dute interesdunek datu pertsonalen tratamenduan dituzten eskubideen erabilerari emandako erantzunarekin lotutako erabilera zehatzari dagokionez, eragindako pertsonak bere eskubidea baliatzeko darabilen erakundeak konpromisoa hartzen duela interesdunen eskubideen erabilerari erantzuteko.

Hala eta guztiz ere, beste bi erakundeen laguntza behar izanez gero, eragindako pertsonak gauzatu duen eskubideari erantzuteko, aldeek konpromisoa hartzen dute ahalik eta azkarren emateko erakundeak eskatutako informazioa, eragindako pertsonari garaiz eta behar bezala erantzun ahal izateko eskubideaz baliatzeari dagokionez.

LAUGARRENA. - INFORMATZEKO BETEBEHARRA

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 13. eta 14. artikuluak eta Datuak Babesteko Lege Organikoaren 11. artikulua betez, bi Aldeek konpromisoa hartzen dute interesdunei informazioa emateko beren datu pertsonalen tratamenduari buruz, baldintza hauetan:

1. Farmazia komunitarioek informazioa eman beharko diete eragindako pertsonei beren datu pertsonalen tratamenduari buruz, eta pertsona horien baimena eskatu beharko dute beren datu pertsonalak udal gizarte-zerbitzuei lagatzeko.
2. XXX(e)ko Udal Gizarte Zerbitzuek jakinarazi behar dute nola tratatuko dituzten eragindako pertsonen datu pertsonalak, DBEOren 13. artikuluan adierazitakoaren arabera, farmazia komunitarioengandik datu pertsonalak jasotzen dituztenean.

Ildo horretan, aldeek alderdi hauen berri eman beharko diete eragindako pertsonei, DBEOren 13. eta 14. artikuluei jarraikiz:

1. arduradunaren eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasuna eta harremanetarako datuak;
2. datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak, hala badagokio;
3. datu pertsonalen tratamenduaren helburuak eta tratamenduaren oinarri juridikoa;
4. datu pertsonalen hartzaileak edo hartzaile-kategoriak, halakorik bada;

5. hala badagokio, arduradunak datu pertsonalak hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzeko asmoa

6. datu pertsonalak gordeko diren epea edo, hori ezinezkoa denean, epe hori zehazteko erabilitako irizpideak;

7. eskubidea duela tratamenduaren arduradunari interesdunaren datu pertsonaletara irispidea izateko, haiek zuzentzeko edo ezerezteko, haien tratamendua mugatzeko edo tratamenduaren aurka egiteko, bai eta datuen eramangarritasunerako eskubidea ere;

8. tratamendua baimenean oinarrituta dagoenean, baimen hori edozein unetan ezeztatzeko eskubidea dagoela, eta horrek ez duela eraginik izango erretiratu aurreko baimenean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunean;

9. kontrol-agintaritza baten aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea;

BOSGARRENA. - DATUEN BABESAREN ARLOKO ARAUDIAN AURREIKUSITAKO GAINERAKO PRINTZIPIOAK ETA BETEBEHARRAK BETETZEA

Informazio-betebeharrari lotutako betebeharrez harago, tratamenduaren erantzunkide bakoitzak konpromisoa hartzen du datuak babesteko legediaren arabera aplikatu behar zaizkion betebeharrak betetzeko, eta, bereziki, betebehar hauek ditu:

a) Hitzarmen hau betetzea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 26. artikulua betez.

b) DBEOren 5. eta 6. artikuluetan aurreikusitako datu pertsonalen tratamendurako printzipio orokorrak eta haien beharrezko legitimazioa betetzea.

c) DBEOren 24. eta 25. artikuluetako tratamenduaren arduradunaren betebeharrak betetzea.

d) DBEOren 30. artikuluaren araberako Tratamendu Jardueren Erregistroa gauzatzea.

e) Neurri tekniko, juridiko eta antolaketa-neurri egokiak inplementatzea, datu pertsonalak behar bezala babesten direla bermatzeko, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 32. artikuluaren arabera.

f) Tratamendu-eragileei lotutako betebeharrak betetzea, DBEOren 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

g) Protokolo bat ezarrita edukitzea, interesdunen eskubideak egikaritzean jarraitu beharreko prozedura ezartzeko; protokolo horrek, gutxienez, honako prozedura hauek jaso beharko ditu: erantzuna, kudeaketa eta jakinarazpena. Hori guztia Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 12. artikulua eta 15.etik 22.era bitartekoak betez.

h) Segurtasun-arrakalei aurre egiteko jardun-protokoloa ezarrita izatea. Protokolo horrek, gutxienez, honako prozedura hauek jaso beharko ditu: hautematea, ebaluazioa, kudeaketa eta jakinarazpena. Hori guztia, DBEOren 33. eta 34. artikuluak betez. Sinatutako lankidetza-hitzarmenaren esparruan egindako tratamenduetan segurtasun-arrakala bat sortzen bada eta aldeetako batek baino ez badu horren berri, 48 orduko gehieneko epean beste aldeari jakinarazi beharko dio, horren inguruan informazioren bat eman edo zerbait egin behar badu ere.

SEIGARRENA. - ERANTZUKIZUNA

Aldeetako batek ere ez du inolako erantzukizunik hartuko hitzarmen honen ondoriozko edozein betebehar ez betetzeagatik edo gauzatzean atzeratzeagatik, ez betetze edo atzeratze hori ezinbesteko kasu baten edo Jurisprudentziak halakotzat onartutako ustekabeko kasu baten ondoriozkoa balitz, bereziki: hondamendi naturalak, gerra, setio-egoera, ordena publikoaren alterazioak, garraioetako greba, hornidura elektrikoaren etendura edo administrazio- edo gobernu-agintariek hartutako salbuespenezko beste edozein neurri.

Era berean, Kontrol agintaritzak (Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, AEPD) tratamenduaren arduradunetako baten aurka ikerketa-prozedura hasten badu, besteek, Hitzarmen honen arabera aldeen artean dagoen harremanetik ondoriozta daitezkeen gai guztietan laguntzeko konpromisoa hartzen dute.

Baldin eta ikerketa-prozedurak tratamenduaren arduradunetako bati zehapena ezartzen badio besteak egindako praktikengatik, lehenak zenbateko hori bideratu ahal izango du, eta eragin zaizkion kalte-galeren ordaina eskatu.

Hala ere, aldeetako bakoitza izango da egiten duen datu pertsonalen tratamenduaren erantzulea. Hala, aldeek bakar-bakarrik erantzungo dute datuak babesteko hitzarmen honetan beren gain hartutako betebeharrak ez betetzeagatik egindako arau-hausteengatik eta erantzule gisa jarduten dutenengatik.